

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Laguntza deialdia, jendearentzat zabalik dauden establezimenduak dituzten eta Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzearen ondorioz jardueran eragina nabaritu duten pertsona autonomoentzat

Aguraingo Udalak, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko ekainaren 17ko bilkuran, erabaki zuen onespena ematea jendearentzat zabalik dauden establezimenduak dituzten eta Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzearen ondorioz jardueran eragina nabaritu duten pertsona autonomoentzako laguntzen deialdiari. Hona hemen testua:

Laguntza deialdia, jendearentzat zabalik dauden establezimenduak dituzten eta Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzearen ondorioz jardueran eragina nabaritu duten pertsona autonomoentzat.

Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan zenbait euste neurri ezarri ziren, eta neurri horiek eragin zuzena izan dute, besteak beste, jarduera ekonomikoetan.

Osasun krisi honetan, eta kontuan izanik, batetik, horrek udalerriko jarduera ekonomikoetan izan duen eragin zuzena eta, bestetik, jarduera horiek suspertzeko prozesuan aurreikusi diren zailtasunak, Aguraingo Udalak beharrezkotzat jo du ezohiko neurriak prestatzea, establezimendu horien egoera ekonomikoa ahal den neurrian hobetzen laguntzeko.

1. artikulua. Laguntza deialdiaren helburua

Deialdiaren xedea da arautzea Agurainen jarduera ekonomikoa egiten duten establezimendu jakin batzuei eman beharreko laguntzak, Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzearen ondorioz jardueran eragina nabaritu duten eta horrek zuzenean galera ekonomikoa ekarri dien udalerriko autonomoen edo norberaren konturako langileen egoera hobetzeko helburuarekin, eta jarduerari euts diezaioten laguntzeko.

2. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko guztira 45.000 euroko zenbatekoa izango da, udalaren 2020ko aurrekontuko 3110.471.000 "Laguntzak bertako hirugarren sektoreari Covid-19ak eragindako osasun alerta dela eta" aurrekontu aplikazioaren kontura.

3. artikulua. Onuradunak

Laguntza jaso dezakete Aguraingo udalerrian establezimenduak izanik merkataritza, ostalaritza eta, oro har, zerbitzuetako jarduerak egiten dituzten, 10 langiletik behera dituzten eta, Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu izanaren ondorioz, jarduera eten behar izan duten edo fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu zaien pertsona eta enpresari autonomoek (autonomo sozietarioak barne), baldin betekizun hauek betetzen badituzte:

- a) Jarduera eteteagatiko prestazioa emateko ebazpena eskuratu izana edo eskuratzeko bidean egotea.
- b) Enpresa jarduera JEZeant alta emanda egon behar da Aguraingo udalerrian, eta bertan egon behar du lantokiak, eta zergei dagokienez Araban helbideratuta.
- c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea. Beterik izan behar ditu, halaber, Aguraingo Udalarekiko zerga betebeharrak.

d) Konpromisoa, negozioa irekita izateko alarma egoera amaitzen denetik aurrera 12 hilabetez gutxienez, eta plantillari eusteko 6 hilabetez gutxienez.

e) Ez edukitzea administrazioan eta auzitegietan dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dion zigorrik edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, sexu arrazioen ziozko bereizketagatik jarritakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera.

f) Ez izatea Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikulua 2. apartatua ezarritako dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duten gainerako debekurik.

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Honako hauek diruz lagundu ahal izango dira:

- Negozio lokalen alokairua.
- Negozio lokalen hipotekak (maileguaren interesak bakarrik).
- Gizarte Segurantzako kuotak (LAAB).
- Establezimenduaren gastu arruntak.
- Eta, oro har, jarduera ekonomikoari berriz ekin ahal izateko negozioa agintaritzak eskudunak eskatutako segurtasun protokoloetara egokitzeko ezinbestekoak diren gastu guztiak.

Diruz lagundu daitezkeen aldia:

- Negozio lokalen alokairua: alarma egoera amaitzen denetik 2020ko abendura arte. Norberaren konturako langileentzako edo autonomoentzako Lanbideren ezohiko laguntzen onuradun izan diren pertsona fisikoen kasuan (Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2020ko apirilaren 8ko Ebazpena), alarma aldia amaitu ondorengo hirugarren hiletik 2020ko abendura arteko aldia lagundu ahal izango da diruz.
- Negozio lokal hipotekadunak: alarma egoera amaitzen denetik 2020ko abendura arte.
- Gizarte Segurantzako kuotak (LAAB): alarma egoera amaitu eta hurrengo hiletik edo, besterik gabe, gizarte segurantzari ordaindu beharreko autonomo kuotak barnean hartzen dituen jarduera eteteagatik prestazioa jasotzeari uzten zaionetik 2020ko abendura arte.
- Jardueraren gastu arruntak eta negozioa segurtasun protokoloetara egokitzeak eragindakoak: 2020ko apiriletik abendura.

5. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Establezimendu edo jarduera ekonomiko bakoitzeko gehienez ere 750 euroko laguntza emango da, edozein izanik ere haren forma juridikoa eta osatzen duten pertsonen kopurua (bazkideak eta/edo langileak). Eskaera kopurua eta eman beharreko dirulaguntzak direla eta, dirulaguntzaren zenbatekoa gutxitu beharko balitz, proportzio berean gutxituko litzateke eskatzaile guztien artean.

6. artikulua. Eskaerak, agiriak eta epea

1. Dirulaguntza eskaerak eredu baten bidez aurkeztu behar dira. Eredua Aguraingo Udaleria joanda eskura daiteke, edo telematikoki udalak bere web orrian jarriko duen formularioaren bitartez (www.agurain.eus). Eskaeran zehaztu behar dira zein gastutarako eskatzen den dirulaguntza eta zein zenbateko eskatzen den.

2. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko eragindako pertsonen jarduera eteteagatik ezohiko prestazioa emateko ebazpena edo, bestela, eskaera izapidetua.

b) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak eta ordainketak egunean dituela frogatzen duen egiaztatzea.

c) Konpromisoa, negozioa irekita izateko alarma egoera amaitzen denetik aurrera 12 hilabetez gutxienez, eta plantillari eusteko 6 hilabetez gutxienez.

d) Zinpeko adierazpena, 3. artikuluan e) eta f) apartatuetako kasuetako batean ere ez dagoela eta kontzeptu berarengatik dirulaguntzarik ez duela jaso dioena.

3. Eskabidean jarri beharreko datuen bat edo aurreko paragrafoan zerrendatutako nahitaezko agiriren bat falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela. Administrazioak eskaera horren esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

4. 20 egun naturaleko epea egongo da laguntza eskaerak aurkezteko, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

7. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Ebazteko eta jakinarazteko hilabeteko epea izango da eskaera aurkezten denetik aurrera, eta isiltasunak esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela, 38/2003 Legearen 25.5 artikuluan zehazten den bezala.

8. artikulua. Administrazio bidearen amaiera

Dirulaguntza ebazteko egintzak administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio eman duen organoari, 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian.

9. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko era

Dirulaguntza eman ondoren, ordainketa bakarra egingo zaie onuradunei dirulaguntza ordaintzeko.

10. artikulua. Prozeduraren izapideak eta ebazpena

Lautadako Kuadrillako Sustapen Ekonomikorako Zerbitzuak izapidetu eta aztertuko ditu eskaerak, eta informazio batzordeari jakinaraziko, hark irizpena eman dezan. Hura izango da ebazpen proposamena.

Alkateak eskuordetuta, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du behin betiko ebazpena.

Ebazpenean onuradunen eta jasoko dituzten zenbatekoen zerrenda jasoko da. Dirulaguntza ukatzen bada, ukatze horren arrazoiak emango dira.

11. artikulua. Laguntzak justifikatzea

Laguntzen onuradunek agiri hauek denak batera aurkeztu beharko dituzte beranduenik ere 2021eko urtarrilaren 30erako:

Dirulaguntzaren xede diren kontzeptuak oinarri hauen 5. artikuluan ezarritako diruz laguntzeko aldien barruan ordaindu izanaren egiaztapenak edo ordainapenak.

Xede bererako beste laguntza batzuk eskatu eta jaso izanaren aitortzea.

Justifikatutako zenbatekoa emandako dirulaguntza baino txikiagoa bada, doitu egingo da, eta, hala badagokio, aldea itzuli egin beharko da, aurrez dagokion prozedura izapidetuta.

Dirulaguntza ez bada aurreikusitako epeetan justifikatzen, emandako dirulaguntza osoa itzuli beharko da; beraz, ezarritako justifikazio epeak igaro eta justifikaziorik egin ez bada, dagokion prozedura hasiko da jasotako zenbatekoa itzultzeko betebeharrak deklaratzeko, aldeztatik errekerimendua eginda.

12. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzekin batera, organismo edo erakunde publiko nahiz pribatuek jarduera edo programa bererako esleitutako dirulaguntzak ere jaso ahal izango dira, betiere dirulaguntza horren zenbatekoa ez bada, bakarka nahiz beste dirulaguntzekin batera, dirulaguntzaren xede diren gastuak baino handiagoa.

13. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hausteekin eta zehapenekin lotutako gaietan, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan eta lege horren arautegia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuak IV. tituluan xedatutakoa.

14. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena; eta Aguraingo Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2020ko ekainaren 26a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES